



22. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Alarma egoerako 22. eguna. 2020ko apirilaren 6a, astelehena.

Hilaren 5ko, igandeko, Kudeaketa / Jarduerak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Duela egun batzuk esan genuena egiaztatzen ari gara. **Jarduera ekonomiko askoren itxierak oso egoera prekarioran kokatu ditu familia asko, diru sarrerarik gabe eta elikagaiak lortzeko zailtasunekin.** Gero eta gehiago dira elikagaien premian dauden pertsona eta familia etorkinen eskaerak. Gizarte-zerbitzuetara bideratzen ditugu lehenik eta behin. Donostiakoak edo beste herri batzuetakoak izan, horiek ere deitzen digute eta. Baina arazoa da aukera horrek, hainbat arrazoiengatik, ez duela funtzionatzen, edo geldotasun amorragarriarekin egiten duela. Edo errolatuta egotea eskatzen dietela, arreta emateko. Edo ...

Horren ondorioz, **ez dira asetzen premiazko erantzunak eskatzen dituzten beharrak**, gaur egungo salbuespenezko egoera honetan **aparteko erantzunak eskatzen dituztenak**. Ez diogu inori erakutsiko nola egin behar duen bere lana. Baina ozen esaten dugu iristen zaizkigun eskaeren kopuruak erakusten duela gauza askok huts egiten dutela. Are gehiago, batzuetan esaten digute beharrak asetzen ari direla, baina azkenean, oso modu partzialean eta osatugabeen bete ere. Ezin dugu ulertu inor kezkatuago egotea norbaitek bi bidetik elikagaiak eskuratzen ote dituen, pertsona hori beste egun batzuetan ezer gabe geratzen den baino.

Duela egun batzuk esan genuen espero genuela, gizarte-zerbitzuek janari-banaketan parte-hartze handiagoa hartu ondoren, Sareak artatu beharreko pertsonen kopurua murriztuko zela. Bada, errealitatea kontrakoa izaten ari da.

Harrera Sarea, ahal duen neurrian, **gizarte-zerbitzuak estali gabe uzten dituzten beharrei erantzuten saiatuko da**, eta beti azpimarratuko du hori dela jo behar duten lehen atea eta haiei dagokiela arazoa konpontzea.

Hainbat motxila/dutxa erosi ditugu. Dagoeneko hiru aste dira dutxatu ezinik (dutxa publikoak itxi ziren eta ez zen irtenbide alternatiborik aurreikusi).

KOMUNIKAZIOA. 21. buletina zabaldu da sareetan eta komunikabideei helarazi zaie.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Sarearekin harremanetan jartzera animatzen zaituztegu, mutil eta neska gazteei **laguntza egiteko**, izan ere, oso ondo etorriko litzaieke. Oraingoz, konfinamenduak irautean duen bitartean, telefono bidezko laguntza izango dute.

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionez, 142 pertsonak emandako diru-sarrerak 9.278€ izan dira guztira.

Gandarias eta Pandoraren eguneroko janari ekarpenak jarraitzen du.



22. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Biharamunerako Pilulak. Ba al dakigu nortzuk diren etxerik ez duten pertsona horiek? Zein behar dituzten? Zein eskubide? Zer ilusio? Zer trebetasun? Zer laguntza eman diezaiekegun? Galdera horiei zuzenduko dizkiegu **Biharamuneko Pilulak**.

11. PILULA

KONPAINIA

Konpainia. Erraza dirudi, ezta? Baina ez daukagunean, nola sentitzen dugun haren beharra! Bada konpainia-eza eguneroko kontua da Saretik lantzen ari garen etxegabetasun-egoeran daudenentzat. Dozenaka dira 18 eta 25 urte bitarteko neska-mutil gazteak, beren lurra, familia eta lagunak utzi zituztenak, eta hemen zulo hori bete ezin dutenak.

Baztertzea. Aitzitik, gazte horiek errezelozko begiradak, ukatze-jarrerak izaten dituzte maiz. Ikusten ez dituen, ikusi nahi ez dituen, gizarte batekin egiten dute topo. Horrek, beti, eta are gehiago adin horiekin, marka lazgarria uzten du bere barnean. Aurrera ateratzeko zailtasun materialak beren herrikideenak baino handiagoak dira, baina axolagabekeria edo arbuio erantsi horrek sakon-sakonean jotzen ditu.

Besarkadak. Konfinamendu egun hauetan zain gaude noiz iritsiko den unea berriro ere, elkar besarkatu, elkar agurtu, eskua eman, elkarri irribarre bat oparitzeko. Mutil eta neska horietako askorentzat zaila zen hori konfinamenduaren aurretik, eta ondoren ere, hala izango da. Suertatzen zaigu entzutea "beren artean elkartzen dira" "ghettoak osatzen dituzte" ... Baina aukerarik ematen ote diegu besteengana irekitzeko? Edo ateak ixten ote dizkiegu?

Lagun egitea. Saretik bultzatzen dugun lana da: laguntzea, entzutea. Batzuetan **hori baino ez da**. Baina hori **zerbait da**. Batzuetan, zailtasunak daude tartean hizkuntza komun batean komunikatzeko. Baina beti dago keinuen hizkuntza, gertutasunarena, enpatiarena. **Eta entzuna izatea oso tresna indartsua da barneratuta sentitzeko.**

Zertan lagundu dezaket? Boluntariotza-proposamenak iristen ari zaizkigu Sarera. Besteen zailtasunen aurrean sentiberak diren pertsonak. Elkartasunaren, justiziaren eta berdintasunaren balioekin bat datorren gizartea eraikitzen inplikatzeko prest daudenak. Eskaintzen dizuegun aukeretako bat **lagun egitea** da. Harremanetan jartzea Sareak lan egiten duen pertsonaren batekin, **entzuteko espazioak betetzeko**. Hor zaudela jakitea. Bakoitzak egoki ikusten duen dedikazioarekin. Sarearen aholkularitzarekin, eskarmentua hartzen joateko, beste esperientzietatik ikasteko, zailtasunak gainditzeko ...

Sar zaitez Sarean laguntza-lan zoragarri honetan. **Esperientzia honetan eman adina jasotzen duzu.** Beste pertsona bati laguntzea eta hazkunde pertsonala lortzea ahalbidetzen du.

Behar duenari konpainia eskaini

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea **Instagram:** @RedAcogidaCiudadana

Dohaintzak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.